

# BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure negozioaren helburu nagusietako bat bezeroekin harreman estu, hurbil eta fidagarria sortzea da. Horretarako, hainbat ekintza egingo ditugu, bezeroek gure proposamenarekin bat egin dezaten eta esperientzia positiboa izan dezaten. Lehenik, arreta pertsonalizatua eskainiko dugu hasieratik. Lokalean sartzen diren bezeroei ongietorria emango zaie eta zerbitzuak nola funtzionatzen duten modu argi eta sinplean azalduko zaie. Langileek giro familiarra sortuko dute, bezeroak eroso sentitzeko.



Horrez gain, bezeroek lehenengo esperientzia ona izatea oso garrantzitsua da, beraz, animaliekin egoteko **arauak eta segurtasun neurriak** modu sinple batean azalduko dira. Adineko pertsonentzat, **langile espezializatuak** daukagu. Haien laguntza berezia eskainiko diote, mugikortasun edo ulermen beharizanak kontuan hartuta. Gure helburua, bezeroek esperientzia polit eta lasai sentitzea da, bai lokala bisitatzean, bai animaliekin egotean.

Online ere bezeroekin harreman jarraitua mantenduko dugu. Sare sozialetan erantzunak azkarrak emango ditugu, eta mezuei eta galderari arreta berezia eskainiko zaie. Gainera, gure komunitatea indartzeko, sare sozialetan, eguneroko istorioak, argazkiak eta berriak partekatuko ditugu, bezeroek gure proiektuarekin gehiago konektatzeko. Gure sare sozialen link: ([www.tiktok.com/@txakur.katuak](https://www.tiktok.com/@txakur.katuak))

Bezeroen iritzia ere oso garrantzitsua izango da. Iritziak jasotzeko kutxa bat jarriko dugu lokalean, eta online inkesta laburrak egingo ditugu hilero. Horrela, bezeroen iritzia kontuan hartuz, gure zerbitzuak hobetzen joan ahal izango gara.

Gainera gure sites ofizialean (<https://sites.google.com/elregato.com/txakurkatuak/inicio>), gure posta elektronikoko ([txakurkatuak@gmail.com](mailto:txakurkatuak@gmail.com)) eta mugikorraren zenbakieren bidez (640 85 40 45) gurekin kontaktatu ahal izango dute zalantza guztiak argitzeko eta beraien iritzia kontuan hartzeko.

## **Bezeroen Integrazioa:**

Bezeroak gure negozioan mantentzea funtsezkoa da. Gure helburua da bezeroak gustura sentitzea, eta gure zerbitzua berriz erabiltzea, hau da fidelitasuna lortzea. Horregatik, haien beharrak entzun behar dugu, beti arreta pertsonalizatua eskainiz.

Alde batetik, bezero leialak motibatuzeko hainbat ekintza jarriko ditugu martxan: suskripzio bereziak, bonusak eta bezero fidelentzako hainbat abantaila. Adibidez, prezio murriztuak erabiliko ditugu denboraldi jakin batzuetan, deskontu-bonoak eskaintzen hasiko gara bezero zaharrentzat eta urtebetetzetan oparitxo edo %10eko deskontua egingo dizkiegu. Horrela, gure komunitatea zoriontsu eta lotuta egongo da gure enpresarekin eta gure zerbitzua erabiltzen jarraitzeko arrazoi gehiago izango dituzte.

Bestetik, komunikazioa eta parte-hartzea indartuko ditugu sare sozialen eta iritzien bidez. Hilaro sare sozialen bidez inkestak egingo ditugu, bezeroek haien hobekuntza proposamenak bidaltzeko eta bezeroak egindako zalantzeei erantzun azkarra emango diegu. Horrela, bezeroak ez dira soilik kontsumitzaileak izango gure proiektuaren parte izango dira.

